

“Zigarreta elektronikoaren erabiltzaileen %50etik %70artekoek erretzen jarraitzen dute”

Esteve
Fernández

Tabakismoa Kontrolatzeko
Saileko burua Kataluniako
Onkologia Institutuan
(ICO)

Esteve Fernandezek bizitza osoa darama Kataluniako Onkologia Institutuak Tabakismoa Kontrolatzeko duen Sailean, tabakismoa aztertzen eta horrek minbizian zer-nolako eragina duen ikertzen. Zenbait ikerketak frogatu dute zigarreta elektronikoak ez direla horien banatzaileek esaten duten bezain kaltegabeak, eta ikerketa horietan parte hartu du Fernandezek. Osasunerako Mundu Erakundearen “zuhurtzia printzipioaren” aldekoa da bera. Nahiz eta zenbait ikerketak frogatu duten kaltegarriak direla epe motz eta ertainean, ez dakigu epe luzean minbizi-sortzailak izan ote daitezkeen.

Tabakoa bezain txarrak al dira zigarreta elektronikoak? Ez, ohiko tabakoak konposatu toxiko asko izaten dituelako. Baina horrek ez du esan nahi osasungarriak direla edo osasunaren ikuspegitik onak direla tabakoaren ordezkio gisa. Saltzen dituzten konpainiek esaten dute “onerako” direla osasunarentzat, daramatzaten konposatuak ohiko zigarretetan baino kontzentrazio txikiagoetan ageri direlako.

Balio al dute erretzeari uzteko edo gutxiago erretzeko? Oraingoz, ez da frogatu tabako kontsumoa murrizten duenik edo horri atxikita doazen kalteak gutxitzen dituenik. Argi dago ez daramatzala hainbeste toxiko eta ez dela tabakoa bezain kantzerigenoa, baina *lurrunkatzen* duten pertsonen erdiek [zigarreta elektronikoaren lurrunkatzearen inalatzeari esaten zaio] jarraitu egiten dute ohiko zigarretak erretzen. Erretzaille asko gailu horietara hurbildu eta harrapatuta geratzen dira; ez bakarrik nikotinarekin, baita keinuzko mendekotasunarekin ere.

Zer-nolako kalteak dakartza? Zigarreta horietako gehienek izaten duten nikotina inalatzeko mendekotasuna sortzen du. Gainera, ebidentzia zientifikoek frogatu dute epe motzera narritatu egiten direla arnasbideak (likido mota bat baino gehiago *lurrunkatzen* dute, ez soilik ur lurruna) eta biriken gaitasuna apaldu egiten dela. Epe luzean, ordea, ez dakigu zer gerta daitezkeen. Nikotinak hainbat eragin izan ditzake bihotz-hodietan.

Zenbait elkarte zientifikok ez dute baztertzen minbiziaren sor lezaketela. Ba al dago hori esateko froga zientifikorik, edo gehiegikeriatzat hartu behar da? Ez dakigu epe luzean zer gerta daitezkeen lurrunkatzearen kontzentrazio toxikoekin, adibidez nitrosaminekin eta formaldehidoekin. Ez dakigu kontzentrazio txikietan minbiziaren sor ote dezaketen. Emaitza erabakigarriak zain egon behar da. Zenbait ikerketak jarraipena egin diete zigarreta elektronikoaren erretzaillei denbora batez, baina eragin kantzerigenoak ez dira berehalakoak. Ikerketa berrien zain egon beharko dugu, baina zaila izango da, zeren *lurrunkatzearen* eraginak erantsi egiten baitzaizkio erretzeak dituenen.

Eta lurrunkatzaile pasiboek ere egin al diezaiekete kalte? Hau da, e-zigarretetik giroan zabaltzen duten lurrunkatzaile pasiboekin gertatzen den bezala, nikotina lurrunkatzean, gerta daiteke haren eratorriaren partikula txikiak, kotininarekin, airean geratzea. Kasu horretan, oso kontzentrazio txikiak izaten dira eta oso azkar barreiatzen dira, baina giroan daude eta gainerako pertsonen barneratu egiten dituzte.

Ba al da kalte gutxiago egiten duen zigarreta elektronikorik? Herrialde batzuetan, Erresuma Batuan esaterako, lehendik ere badute esperientzia ahoan erabiltzeko tabakoarekin. Europa iparraldean, berriz, *snus* delakoak zituzten, mihipean jartzen diren poltsatxo txikiak. Hori galarazita dago Europako gainerako herrialdeetan. Produktu mota hori izateak ez du esan nahi arriskurik ez dutenik. Komunitate zientifikoak eskatzen du, nahiz eta e-zigarreta tresna itxaropentsua izan, ez ditzala baliorik gabe utzi tabakoaren aurka lortu diren aurrerapenak. Orain jabetxe batean e-zigarreta elektroniko bat *lurrunkatzea* aurrerapen horien aurkakoa da. Gainera, kontrola falta da, produktu mota askotakoak zabaldu direlako, hemen eginak izan daitezkeenak edo atzerrian. Europan ez dago horri buruzko araudirik, eta zigarreta elektronikoak egiten dituzten markarik ospetsuenak hori eskatzen ari dira.

Osasunerako Mundu Erakundearen aholkua izan da zigarreta elektronikoak ez erabiltzeko harik eta erakunde arautzaile batek frogatzen duen arte eraginkorrak, seguruak eta kalitatezkoak direla. OMEk zuhurtzia printzipioa erabiltzera dei egiten du, ez dakigulako zer-nolako eraginak izan ditzaketan. Erretzeari uzteko produktu kaltegabe gisa aurkeztu dituzte zigarreta elektronikoak, baina zientziaren ikuspegitik ez dakigu hala ote den. Ikerketa gehiago behar dira, eta, bitartean, zuhurtziaz erabili. Horrek ez du esan nahi, etorkizunean, ez dela izango tabakoaren aurka egiteko tresna bat gehiago, baina oraindik ez dugu frogarik. Oraingoz, OMEk esan du osasun sistemek mugak jarri behar dizkiotela tabakoa galarazia dagoen lekuetan.